

## Galdera

Noiz erabiltzen da "daitekeen arren" (bi -e-) eta noiz "daiteken arren" (-e- bat)? Zein dago ondo? Adibidez, esaldi honetan: Gure bizimodua aldatzea zaila izan daitekeen/daiteken arren

## Erantzuna

Adizkiaren forma zuzena **daitekeen** da.

1/ \*daiteken ez da forma zuzena. Euskaltzaindiaren [78. araua](#)ren izenburua [Aditz Laguntzaile Batua](#) da, eta honela dio 6. orrialdean (adi 5., 9., 10. eta 11. lerroei; letra lodia gurea da):

... adizkiari -en eta -ela atzizkiak eransterakoan gertatzen den forma-aldaketaz egiten den oharraz gainera (ikus 1. oharra), beste hau ere kontuan hartu behar da:

- -z + -en/-ela > -zen/-zela (naizen/naizela, haizen/haizela, etab.)
- -te + -en/-ela > -ten/-tela (zareten/zaretela, duten/dutela, luketen/luketela, etab.)
- **-ke + -en/-ela > -keen/-keela (litzatekeen/litzatekeela, lukeen/lukeela, etab.)**
- -n + -en/-ela > -n/-la (nintzen/nintzela, zen/zela, zedin/zedila, zezan/zezala, zizun/zizula, zatekeen/zatekeela, etab.)

Hortaz, azken bi arauok kontuan hartuz:

**nintzateke + -en/-ela > nintzatekeen/nintzatekeela.**

**nintzatekeen + -en/-ela > nintzatekeen/nintzatekeela.**

**Hots: nintzatekeen/nintzatekeela-ren azpian, nintzateke (alegiatzko) + -en/-ela izan dezakegu edo nintzatekeen (iragana) + -en/-ela.**

- -t + -en/-ela > -dan/-dala (zaidan/zaidala, dudan/dudala, etab.) • -k/-n + -en/-ela > -an/-ala, -nan/-nala (zaian/zaiala, dunan/dunala, etab.)
- bokala + -en/-ela > bokala + -n/-la (dion/diola, zaigun/zaigula, duzun/duzula, dien/diela, etab.), baina, adizkiaren azken bokala -u bada, eta -u hori pertsona markari (-gu, -zu...) ez badagokio (gaitu, du, ditu, etab.) orduan:
- -u+ -en/-ela > -uen/-uela (gaituen/gaituela, duen/duela, etab.)

(Ohar hauek Euskaltzaindiak Bilbon, 1997ko azaroaren 28an egindako bilkuran onartu zituen).

Beraz, **-ke** morfemaren ondoan **-en** atzizkia erantsiz gero, emaitza **-keen** izango da beti, lehenaldiko adizkia nahiz erlatibozko forma izan. Aditz Laguntzaile Batua estekan duzu aditz laguntzailearen paradigma osoa.

2/ Kontuz! **-kete** amaiera duten adizkietan **ez** da beste **-e-** bat jartzen; **-e- bakarra dute**:


	+ -ela / -en	Adibidez
<b>-te</b>	-tela	zenieketela, dezaketela, diezazuketela, luketela...
	-ten	zenieketen, dezaketeten, diezazuketen, luketen...

Beraz, ez dira zuzenak honako hauek:

- \*zenieketeela, \*dezaketeela, \*diezazuketeela, \*luketeela, \*zenieketeen, \*dezaketeen, \*diezazuketeen, \*luketeen...

3/ Gehiago jakiteko, ikusi honako hauek:

<https://irale.hezkuntza.net/eu/1090> ("eskainiko zenieken" zehar galdera: zuzena da?)

[2020-21eko galde-erantzunen bilduma](#)  (93. or.) ('zenezakeen', 'zenezaken': zein da zuzena?)

\* Zeinuak (izartxoak) adierazten du haren ondoren idatzita dagoena ez dela zuzena.